

**BASTIDOREETAN ETA BESTE  
ELEMENTU BATZUETAN KANPO  
PUBLIZITATEA JARTZEA ARAUTZEN  
DUEN ORDENANTZA.-**

**XEDEA.-**

1. artikulua: Ordenantza honen xedea da kanpoko publizitatea izaera orokorrean arautzea (zehazki, kanpoko publizitate hesiak deritzenek bete beharreko baldintzak), eta udal lizentzia jasotzeko prozedura eta diziplina araubidea arautzea.

**2. artikulua: 1.-** Kartelera edo publiziterako hesiak dira ezaugarri hauek dituztenak: inguruan hesi bat, forma geometrikoz, eta barruan elementu lauak, neurri normalizatuak, material iraunkorrek eta itxura onargarriekin, publizitateko kartelak jartzeko bide ematen dutenak.

**2.** Honakoak ez dira publizitate hesiak

a) Leku baten barruan edo ondoan egiten diren jarduerak kanpora adieraztea eta erakustea.

b) Burutzen ari diren obren informazio hesiak eta beraiei buruzkoak.

c) Hiri altzarien diseinuaren berezko zatia diren publizitatea, zuzenean sartua.

d) Eraikuntzan eta eransketan jarritako kartelak eta "pintadak".

**PUBLIZITATEAREN EDUKIA.-**

**3. artikulua:** Ordenantza honen ondorioetarako, publizitatea da jendeari jarduera politikoa, sindikala, profesionala, kulturala, kirolekoa, ekonomikoa, edo kontsumorako produktu edo zerbitzuak jakinarazteko ekintza guztiak.

**ORDENANZA REGULADORA DE  
PUBLICIDAD EXTERIOR EN  
BASTIDORES Y OTROS ELEMENTOS.-**

**OBJETO.-**

**Artículo 1:** Constituye el objeto de esta Ordenanza, la regulación con carácter general de la publicidad exterior y específicamente de las condiciones que han de cumplir las llamadas vallas de publicidad exterior, así como el procedimiento a seguir para la obtención de la correspondiente licencia municipal y el régimen disciplinario.

**Artículo 2:1.-** Se considerarán carteleras o vallas publicitarias, aquellas instalaciones compuestas de un cerco, de forma geométrica, comprensivas en su interior de elementos planos, dimensiones normalizadas, materiales resistentes y digna presentación estética, que hagan posible la fijación de carteles de publicidad.

**2.** No se considerarán vallas publicitarias:

a) La manifestación e información visual al exterior de las actividades que se ubican en el interior y sus anexos.

b) Las vallas de información de las obras en ejecución y que se refieran a éstas.

c) La publicidad incorporada directamente y que forma parte del propio diseño del mobiliario urbano.

d) Las "pintadas" y carteles pegados a la edificación y anexos.

**CONTENIDO DE LA PUBLICIDAD.-**

**Artículo 3:** A efectos de esta Ordenanza, se entiende por publicidad toda acción encaminada a difundir entre el público el conocimiento de la existencia de una actividad política, sindical, profesional, cultural, deportiva, económica o de productos o servicios que se ofrezcan al

Publizitate horren edukiak pertsonentzako eta inguruarentzako etika normalizatua errespetatu behar du.

#### **APLIKATZEKO EREMUA.-**

**4. artikulua:** Ordenantza hau Getxo udal mugarte osoan aplikatu behar da.

#### **KOKAERA.-**

**5. artikulua:** Lizentzia eskaeran adierazten den leku zehatzean edo lizentzian ezartzen den tokian ipini behar dira hesiak, derrigorrez egin beharreko xehekapen aldaketak kontuan izanik.

**6. artikulua:** 1.- Hirilurrean hesi iragarleak baimenduko dira egoera hauetan:

a) Orubeen barrualdean, eraikigarriak izan zein ez izan, behar bezala hesiz inguratuta badaude. Ondorio hauetarako, udal zerga egokia sortzen dutenak izango dira orubeak.

b) Eraikitzen edo birgaitzen ari diren eraikinetan.

c) Babeseko hesietan edo eraikuntzen aldamiotan, eraisten ari badira.

Fatxada nagusiaren tratamendua ez daukaten mehelinetan. Mehelina eraikuntza intentsiboko lur mugakide bi bereizten dituen horma da. Herri bidera edo eraiki ezineko lurrera (Hirigintza Arauei jarraiki) ematen duena, berriz, ez da mehelina.

**2.** Eraikuntzari iraunkorki lotuta dauden aldeetan, bertako fatxada eta itxitura hormetan, industria eta merkataritza jarduerak (baita haietan ematen diren zerbitzuak ere) aurkitzen laguntzeko errotuluak baino ez dira baimenduko.

consumo.

El contenido de dicha publicidad debe respetar una ética normalizada de la persona y el entorno.

#### **AMBITO DE APLICACION.-**

**Artículo 4:** El ámbito de aplicación de la presente Ordenanza será la totalidad del término municipal de Getxo.

#### **EMPLAZAMIENTO.-**

**Artículo 5:** Las vallas serán ubicadas en el emplazamiento exacto expresado en la solicitud de licencia o en el que en ésta se establezca en base a modificaciones de detalle que, necesariamente hubiesen de tenerse en cuenta.

**Artículo 6: 1.** En el suelo urbano se autorizará la instalación de vallas anunciadoras en las siguientes situaciones:

a) En el interior de los solares sean o no edificables, siempre que éstos se hallen debidamente vallados. Se considerarán solares a estos efectos, aquellos que devenguen el impuesto municipal correspondiente.

b) En edificios en construcción o rehabilitación.

c) En vallas de protección o andamiajes de edificaciones, en caso de demolición.

d) En medianeras cuyo tratamiento no sea como el de la fachada principal, entendiéndose como medianera la pared de separación de dos predios contiguos en edificación intensiva. En ningún caso es pared medianera la que da sobre vía pública o sobre espacio libre de edificación según las Normas Urbanísticas.

**2.** En las fachadas y muros de cierre de zonas permanentemente vinculadas a la edificación, solo podrá autorizarse la colocación de rótulos que faciliten la localización de actividades industriales, comerciales o de los servicios que

en las mismas se desarrollen.

**7. artikulua:** Lurzoru urbanizagaian eta urbanizaezinean ez da baimenduko hesiak jartzea, salbu eta hesiak jarri nahi diren lurren jabariko titularrak edo lizentziaren eskatzaileak idatziz adierazten badute edozein konpentsazio ekonomikori uko egiten diotela, hesiak kentzeko kontzeptupean, dagoen poligono edo jardununerako tramitatu behar den konpentsazio proiektuaren edo lurak berriro zatitzeko proiektuaren kontura. Idazki horretan, jarritako hesiak jarduketek eskatzen duenean bere kontura kentzeko konpromisoa ere hartu behar du.

**Artículo 7:** En el suelo apto para urbanizar y en el no urbanizable, no se autorizará la instalación de vallas, salvo que tanto el titular dominical del terreno donde se pretendiera instalar aquéllas como por el solicitante de la licencia, se haga constar por escrito que renuncian a cualquier tipo de compensación económica en concepto de retirada de las vallas con cargo al proyecto de reparcelación o compensación que se hubiese de tramitar para el polígono o unidad de actuación en que se encuentre enclavado, asumiendo en dicho escrito el compromiso de retirar a su costa las vallas instaladas en el momento en que las actuaciones lo requieran.

**8. artikulua:** Herri bidearen inguruan hesi iragarleak baimenduko dira, baldin eta bidea hirilurrean zehar ez badoa. Errepideen Araudi Orokorren 74 eta 75. artikuluetan xedatutakoa bete behar da. Gainera, ordenantza honetan ezarritakoa aplikatu behar da prozedurari eta lizentziak eskuratzeari dagokionez.

**Artículo 8:** Se autorizará la instalación de vallas anunciadoras en el entorno de la red viaria y siempre que ésta no discorra por suelo urbano, se estará a lo dispuesto en los artículos 74 y 75 del Reglamento General de Carreteras, todo ello sin perjuicio de la aplicación de la presente Ordenanza en los aspectos referentes a procedimiento y obtención de licencias.

**9. artikulua:** Orubeen barruan hesiak jartzeko, behar diren hesien gainean jarriko dira.

**Artículo 9:** En el supuesto de instalación de vallas en el interior de solares, se emplazarán en el trasdós del necesario vallado.

**10. artikulua:** Eraikitzen, birgaitzen edo eraisten ari diren eraikinetan hesiak jartzekotan, obraren itxiturak eta eraikinak berak atzemandako herri bideko espazioan jar daitezke, baldin eta itxiturarako herri bidea atzemateko udalaren baimenik badago.

**Artículo 10:** En el supuesto de instalación de vallas en edificios en construcción, rehabilitación o derribo, se podrán situar en el espacio de vía pública ocupado por el cierre de la obra y el propio edificio, y siempre que tal cierre estuviera amparado, en lo que a ocupación de vía pública se refiere, por el permiso municipal correspondiente.

Kasu horietan, obra bukatutakoan, hesi iragarlea kendu behar da.

En estos casos, una vez acabada la obra, surgirá la obligación de retirar la valla anunciadora.

#### **DEBEKUAK.-**

#### **PROHIBICIONES.-**

**11. artikulua.** 1. Inola ere ez da baimenduko ondoko kalifikazio hau duten lurretan hesiak edo publizitatea oro har jartzea, 13. artikuluko salbuespenekin:

**Artículo 11:1.** En ningún caso se autorizará la instalación de vallas o publicidad en general, con la excepción prevista en el artículo 13, en terrenos que ostenten la siguiente calificación:

a) Parke publikoko sistema orokorra edo tokikoa.

b) Lurzoru urbanizaezina, paisaia babestekoa edo bereiziki babestutakoa.

c) HPOaren 11. planoan definitutako hiri multzoak, eta Getxo monumentu multzoaren mugapen eremua.

d) Dauden eraikinen mehelina, fatxada nagusiaren tratamendu berdina badu.

**2.** Beren beregi jartzen diren salbuespenetan izan ezik, ezin da herri bideko espazioetan (ez oinplanoan ez hegalean) hesirik jarri. Ondorio horietarako, ez dira kontuan izango markoa eta goiko aldean dagoen argiztapen fokoa. Markoa herri erabilerako espazioaren hegalean badago, ordenantza honetan ezarritakoa salbu, beraren beheko aldea (eta edozein aldetara) gutxienez 2,50 metrora egon behar da espaloitik.

Debeku honetan salbuetsi egingo dira udalak aldi baterako eta iraunkorki udal, gizarte, kultura eta abarreko informaziorako jartzen dituen hesiak, herri bideko espazioetan.

**3.** Gainera, honako hauetan publizitateko hesiak jartzea debekatuta dago:

a) Dauden fatxadak.

b) Eraikuntzari lotutako aldeak, hala nola, paramentuak, gainaldeak, hormak, eta itxitura iraunkorrak (esaterako, terrazak, lorategiak, ikastetxeetako patioak, etab).

c) Hiri multzoen eremua edo balio historiko eta artistikoko eraikinak, lorategiak eta paisaia bitxiak, eta ikuspegi interesgarriak.

d) Jabetza publiko edo pribatuko espazioak, hauen ikuspegia galarazten edo oztopatzen bada: zuhaitzak, lorategiak (publikoak zein pribatuak),

b) Sistema general o local de parque público.

b) Suelo no urbanizable de protección al paisaje o especialmente protegido.

c) Conjuntos urbanos definidos en el Plano nº 11 del P.G.U. y el ámbito de la delimitación del conjunto monumental de Getxo.

d) En la medianera de los edificios existentes si estuviera tratada de forma análoga a la Fachada Principal.

**2.** Salvo las excepciones expresamente señaladas, no se permitirá invadir con la instalación de vallas ni en planta ni en vuelo los espacios de uso público. A estos efectos no se computarán el grueso del marco y el foco de iluminación instalado en la parte superior. En el supuesto de que el marco vuele sobre espacio de uso público a excepción de lo dispuesto en la presente Ordenanza, la altura mínima de la parte inferior de aquél con respecto a la acera, y en cualquier punto será de 2,50 metros.

Quedan excluidas de esta prohibición las vallas que instale el Ayuntamiento en aquellos espacios de uso público que con carácter temporal o permanente sirvan para informaciones de tipo municipal, social, cultural, etc.

**3.** Asimismo, se prohíbe la instalación de vallas publicitarias en:

a) Las fachadas existentes.

b) Zonas vinculadas a la edificación, tales como paramentos, cubiertas y muros, así como en cerramientos permanentes, verbigracia, terrazas, jardines, patios de centros docentes, etc.

c) El ámbito de los conjuntos urbanos o edificios de valor, histórico artístico, jardines y paisajes pintorescos y vistas de interés.

d) Espacios ya sea su propiedad de naturaleza pública o privada, en lo que se impida o menoscabe la visión de arbolado, áreas

balio historiko edo artistikoko eraikinak edo multzoak, edo paisaien ikuspegiak.

## HESIAK ETA KARTELERAK JARTZEKO BALDINTZAK

**12. artikulua: 1.** Kartelera edo hesi bertikalaren gehieneko luze-zabalerako hauek dira: 8,70 x 3,70 metro, apaisatua bada, eta 6,70 x 4,70 metro bertikala bada. Ez da baimenduko hesiak lerrotan jartzea, ezta hesi apaisatuko lerro bi, bata bestearen gainean, jartzea. Hesi batetik bestera gutxienez 0,25 metro egon behar dira lerro zuzenean. Kartelera bakoitzak bere egitura izan behar du, bereizia, obrako aldamiocoi lotuta egon ezean.

2. Ez da baimenduko hesi iragarleak eraikin, horma eta itxituretan zuzenean jartzea; kanpoko euskarriak edo finkatzeko bestelako bitartekoak erabili behar dira. Kartelaren margo eta ataripeetan, jabea den enpresaren izen edo izen-baltzua ageri behar da; bera izango da kartelera jartzeko eta indarreko arautegia betetzeko erantzule.

3. Hesiak zurrun ainguratu behar dira, euskarri baten bidez. Hori proiektu baten bidez frogatu behar da, teknikari eskudun batek sinatuta eta dagokion elkargo ofizialak onetsita.

Euskarriak hesiaren egonkortasuna bermatu behar du, oso eguraldi txarra egonda ere.

Publizitateko hesia eraikitzeke erabiltzen diren materialek artapen ona bermatu behar dute, gutxienez lizentzia indarrean dagoen aldirako.

4. Udalak, Lurraren Legearen 181. artikulua bidez eta Hirigintzako Diziplinaren Araudiaren 10. artikulua bidez eman zitzaizkion ahalmenen itzalpean, egoki deritzen burutzapen aginduak emango ditu instalazioak segurtasun eta apaintasun publikoko egoera egokian

ajardinadas públicas o privadas, conjuntos o edificios de valor histórico artístico o perspectivas paisajísticas.

## CONDICIONES DE INSTALACION DE LAS VALLAS Y CARTELERAS.-

**Artículo 12: 1.** La cartelera o valla publicitaria tendrá unas dimensiones máximas de 8,70 x 3,70 metros si es apaisada y 6,70 x 4,70 metros si es vertical. No se admitirá la colocación de vallas en líneas, ni la colocación de dos hileras de vallas apaisadas superpuestas. La distancia mínima de valla a valla deberá ser superior a 0,25 metros en línea recta. Cada cartelera se instalará con estructura independiente de cualquier otra, salvo que estén vinculadas al andamiaje de obra.

2. No se permitirá la fijación directa de vallas anunciadoras sobre edificios, muros y cierres, sino que habrán de ser utilizados soportes exteriores u otros medios de fijación. En los soportales o marcos de las carteleras deberá constar el nombre o razón social de la empresa propietaria, que será responsable de su conservación y del cumplimiento de la normativa vigente.

3. Las vallas se instalarán rígidamente ancladas, mediante soporte justificado por proyecto redactado por técnico competente, que necesariamente deberá contar con el visado del colegio profesional correspondiente.

El soporte garantizará la estabilidad de la valla, aun en las peores condiciones atmosféricas.

Los materiales empleados en la construcción de la valla publicitaria garantizarán su buena conservación al menos durante el período de vigencia de la licencia.

4. El Ayuntamiento, al amparo de las facultades que le confieren los artículos 181 de la Ley del Suelo y 10 del Reglamento de Disciplina Urbanística, dictará las órdenes de ejecución que considere oportunas, respecto del mantenimiento de las instalaciones en las debidas condiciones

edukitzeari buruz.

**5.** Eman den instalazioaren ondorioz egiten den instalazio oro ikuskatuko dute azkenean udaleko zerbitzu teknikoek; gero txostena egingo dute, ezarritako baldintzak betetzen diren ala ez jakinarazteko. Betetzen ez badira, egoki deriztzen neurriak hartzeko proposatuko dute.

Ondorio horietarako, lizentziaren titularrak, publizitateko hesia jartzen bukatu eta 15 eguneko epean, gehienez, Alkatetzari jakinaraziko dio bukatu duela. Jakinarazpenarekin batera, txosten teknikoa aurkeztu behar du, lizentzian ezarritako baldintzak betetzen dituela eta instalazioa egokia dela erakusteko. Bereziki aipatu behar dira instalazioak dituen segurtasun neurriak, haizeari eta bestelakoei dagokienez.

### **13. artikulua:**

Halaber, debekatuta dago publizitatea, eta oro har, edozelako ideiak, leloak, konsignak, deialdiak, etab kartelen eta pintaden bidez jartzea hormetan, harresietan, kristaletan edo herri bidetik ikus daitezkeen fatxadak dituzten elementuetan, salbu eta merkataritzako establezimendu baten titularrak beraren kristalean jartzen badu, bere jarduerari buruzko gauzak adierazteko.

Gainera, herri bideko espazioetan jarri beharreko terrazetako elementuetan publizitatea jartzea debekatuta dago, salbu eta establezimenduaren izen komertzialari buruzkoa bada.

Hamaikagarren artikuluko debekuetatik salbuetsiko da lur horietan ezarritako hiri altzarien diseinuari erantsitako eta beraren barruan dagoen publizitatea.

**14. artikulua:** Kartelerek ez dute inoiz honelako ondorioz sortu behar:

de seguridad y ornato público.

**5.** Toda instalación llevada a efecto como consecuencia de la licencia otorgada, queda sujeta a una comprobación final por los servicios técnicos municipales, quienes informarán sobre el cumplimiento o no de las condiciones impuestas, proponiendo en su caso la adopción de las medidas que estimen oportunas.

A estos efectos, el titular de la licencia, en el plazo máximo de 15 días a partir de la terminación de la instalación de la valla publicitaria, comunicará tal circunstancia a la Alcaldía, acompañando al efecto informe técnico relativo al cumplimiento de las condiciones impuestas en la licencia y a la idoneidad de la instalación ejecutada, con particular referencia a las condiciones de seguridad en que se encuentre tal instalación, respecto a la acción de viento y demás circunstancias.

### **Artículo 13:**

Queda igualmente prohibida la publicidad y, en general, la difusión de ideas, lemas, consignas, convocatorias, etc., cualquiera que fuera su naturaleza, mediante la inserción de carteles y pintadas en paredes, muros, cristales o elementos con fachadas visibles desde la vía pública salvo que se coloque por el titular de un establecimiento comercial y en la cristalera del mismo, para anunciar cuestiones relacionadas con su actividad.

Queda igualmente prohibida la publicidad en los elementos de las terrazas a instalar en espacios de uso público, salvo que ésta se refiera al nombre comercial del establecimiento.

Queda exceptuada, de las prohibiciones reguladas en el artículo once, la publicidad incorporada directamente y que forma parte del propio diseño del mobiliario urbano instalado en los citados terrenos.

**Artículo 14:** Las carteleras nunca deberán:

- |   |  |
|---|--|
| a) Itsutu, nekatu edo ikusmenean eragozpenak sortu.   | b) Producir deslumbramiento, fatiga o molestias visuales.  |
| c) Trafikoko seinaleekin nahasteko aukera eman.   | d) Inducir a confusión con señales de tráfico.   |
| c) Ikusgarritasuna oztopatu.  | c) Interferir la perfecta visibilidad.   |
| d) Arautegiak finka mugakideei dagokienez zehazten dituen konponketa eta zortasunak ez betetzea. Zortasuna 60 cm izango da barruko eraikuntzan, eta 4 metro eraikuntza irekian. | d) Incumplir las reparaciones y servidumbres que, en relación con las fincas colindantes, determine la normativa, que será de 60 cms. en edificación interior y 4 metros en edificación abierta. |

**15. artikulua:** Hesia jarri nahi den lursail berean dauden instalazioak iragartzeko publizitateko hesirik ezin da jarri.

**Artículo 15:** No se permitirá colocar vallas publicitarias para anunciar instalaciones situadas en el mismo terreno en el que se pretende ubicar la valla.

Establezimenduetan iragarkirik jarritz gero, errotuluak izan behar dira. Eguneko argirik gabe ikusgarri izan daitezen asmorik badago, transparentziaz argiztatu behar dira. Haien diseinu, itxura eta instalazioa nabarmen bereiztu behar da publizitateko hesietatik.

Caso de instalarse anuncios en los propios establecimientos, estos habrán de ser rótulos, los cuales si se pretende que sean visibles sin luz diurna, deberán iluminarse por transparencia y su diseño, apariencia e instalación, habrá de distinguirse de forma clara del de las vallas publicitarias.

**16. artikulua:** 1. Hesia jarri nahi den lursail berean dauden instalazioak iragartzeko publizitateko hesirik ezin da jarri.

**Artículo 16:** 1. No se permitirá colocar vallas publicitarias para anunciar instalaciones situadas en el mismo terreno en el que se pretende ubicar la valla.

2. Establezimenduetan iragarkiak errotuluak izan behar dira. Eguneko argirik gabe ikusgarri izan daitezen asmorik badago, transparentziaz argiztatu behar dira. Haien diseinu, itxura eta instalazioa nabarmen bereiztu behar da publizitateko hesietatik.

2. La instalación de anuncios en los propios establecimientos deberá de ser mediante rótulos, los cuales si se pretende que sean visibles sin luz diurna, deberán iluminarse por transparencia y su diseño, apariencias e instalación, habrá de distinguirse de forma clara del de las vallas publicitarias.

3. Errotuluak, iragarki-plakak eta antzekoak jartzeko udal lizentzia jasotzeko exijitzen diren baldintzak ordenantza honetan jaso dira: Eraikuntzaren Parte Ez Diren Gauzen Hegaldurari Buruzko Ordenantza.

3. Las condiciones exigidas para la obtención de la licencia municipal de instalación de rótulos, placas anunciadoras y otros análogos están recogidas en la Ordenanza sobre Vuelo de Objetos que no forman parte integrante de la Construcción.

## **LIZENTZIA EMATEKO PROZEDURA**

## **PROCEDIMIENTO DE CONCESION DE LICENCIA**

**17. artikulua:** Lurraren eta Hiri Antolamenduaren Araubidearen Legearen 173. artikuluan ezarritakoaren itzalpean, eta Hirigintzako Diziplinako Araudiaren 1. artikulua arabera, publizitateko hesiek udalaren aldez aurretiko lizentzia behar dute jarri ahal izateko, lizentziaren bidez aitortzen den eskubidea hirigintzako erabilera mota bat delako.

**18. artikulua:** Lizentzia jasotzeko prozedura interesatuak eskatu behar du. Horretarako, udal administrazioa eskaera egin behar dio, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 70. artikuluko baldintza guztiak betez.

**19. artikulua:** Lizentzia eskaerari honako agiriok erantsi behar zaizkio:

a) Proiektu teknikoa, 14. artikuluan adierazitako baldintzak betez. Honako hauek bete behar ditu derrigor:

- Jarri beharreko elementuak azaltzen dituen memoria. Hesiaren neurriak, muntatzeko sistemak eta jarri beharreko leku zehatza adierazi behar dira. Egituraren berme teknikoa eman behar du, haizea dela-eta.

- Oinplanoa eta altxaera planoak, 1:100 eskalan. Proiektzioak zehatz-mehatz islatzeko modukoak izan behar dira plano horiek, hesi osoko zoruan nahiz paramentu bertikaletan.

Toki zehatzaren eta inguruaren zati baten (zentzuzkoa) argazkia, 8 x 11,5 cm-koa. Jarri nahi den hesia aurrez ematen duen bide ofizialaren zorua beti izango da kontuan.

b) Erantzukizun zibileko poliza, hesia jartzeko inori egin ahal dizkion kalteak estaltzeko.

c) Orubeak Orubeen gaineko Udal Zergaren

**Artículo 17:** Al amparo de lo que establece el artículo 173 de la Ley sobre Régimen del Suelo y Ordenación Urbana, y artículo 1 del Reglamento de Disciplina Urbanística, las vallas publicitarias necesitarán para su instalación, la previa licencia municipal, toda vez que el derecho que con la licencia se reconoce configura un tipo de uso urbanístico.

**Artículo 18:** El procedimiento para la obtención de la licencia se instará por el interesado, el cual dirigirá escrito a la administración municipal, en el que se contendrán todos los requisitos que establece el artículo 70 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimientos Administrativo Común.

**Artículo 19:** A la petición de licencia se adjuntarán necesariamente, los siguientes documentos.

a) Proyecto Técnico en las condiciones expresadas en el artículo 14 que necesariamente contendrá:

- Memoria explicativa del elemento o elementos a instalar, especificando dimensiones, sistemas de montaje y lugar exacto donde vaya a ubicarse la valla, con justificación técnica del elemento estructural requerido a la acción del viento.

- Plano de planta y alzado, a escala 1:100 en que se puedan reflejar exactamente las proyecciones, tanto sobre el suelo como sobre paramentos verticales de la totalidad de la valla.

- Fotografía tamaño 8 x 11,5 cms. del punto exacto y del entorno en una zona razonable. Siempre se contemplará el suelo de la vialidad oficial a que de frente la valla que se pretende instalar.

b) Póliza de seguro de responsabilidad civil que cubra los posibles daños a terceros que puedan producirse como consecuencia de la instalación de la valla.

c) Justificante de que el solar se encuentra al



ordainketan egunean dagoelako ziurtagiria.

corriente del pago del Impuesto Municipal de Solares.

### **LIZENTZIEN BALIOZKOTASUNAREN EPEA**

**20. artikulua:** 1. 1. Lizentzien baliozkotasunaren epea urte betekoa izango da, beste bat ezarri ezik (lizentziaren eskatzaileak eskatuta edo bidezko arrazoiengatik). Ebazpena jakinarazten denetik hasiko da epea zenbatzen.

### **PLAZO DE VALIDEZ DE LAS LICENCIAS**

**Artículo 20: 1.** El período de validez de las licencias, salvo que por solicitarlo el peticionario o por razones justificadas se hubiere determinado otro, será de un año, iniciándose el cómputo del plazo desde la fecha de notificación de la resolución.

### **LIZENTZIAK IRAUNGITZEA**

**21. artikulua:** Lizentziak kasu hauetan iraungiko dira:

a) Eskatzaileak atzera egiteagatik, Alkatezari zuzendutako idazki baten bidez.

b) Lizentzia eman zen epea bukatu egin delako.

c) Lizentzian ezarritako baldintzak urratu izanagatik, besteak beste, tasak eta sortzen diren eskubideak ordaindu ez izana.

d) Lizentzia ematea ekarri zuten inguruabar faktikoak desagertzeagatik.

e) Iraungitzeagatik, ordenantza honen 23. artikuluan araututakoaren arabera.

### **EXTINCION DE LAS LICENCIAS**

**Artículo 21:** La extinción de las licencias se producirá:

a) Por desistimiento del solicitante, expresado por escrito dirigido a la Alcaldía.

b) Por haber concluido el tiempo para el que fue concedida.

c) Por haber infringido las condiciones impuestas en la licencia, entre las que se encuentran las de no haber abonado las tasas y derechos que se devenguen.

d) Por la desaparición de las circunstancias fácticas que determinaron su otorgamiento.

e) Por caducidad, de acuerdo con lo regulado en el artículo 23 de esta Ordenanza.

**22. artikulua:** Lizentzia iraungitzen denean, titularrek publizitatea kendu behar dute 15 eguneko epean. Instalazioa kendu beharko dute, ipini baldin badute.

**Artículo 22:** Extinguida una licencia, sus titulares, en el plazo de 15 días, deberán proceder a la retirada de la publicidad, y, en su caso, al desmantelamiento de la instalación.

Hori bete ezean, udalak interesatuari agindeia egingo dio, astebeteko epean bere bitartekoak erabiliz publizitatea edo instalazioa ken dezan. Agindu hori ere ez badu betetzen, udaleko langileek kenduko dute, enpresa horren kontura. Enpresak, bestalde, bidezko liritekeen zehapenen munta ordaindu behar luke.

En el supuesto de incumplimiento, el Ayuntamiento requerirá al interesado para que en el plazo máximo de una semana retire por sus propios medios la publicidad o instalación, y en el caso de nuevo incumplimiento, será retirada por personal municipal con cargo a dicha empresa, que, por otra parte deberá abonar el montante de las sanciones a que hubiera lugar.

**23. artikulua:** Lizentzia berez iraungiko da, baldin eta ematen denetik hilabeteko epean ez bada publizitatea jartzen edo instalatzen. Gainera, udalak beren beregi adieraz dezake hori egintza baten bidez.

#### **ARAUBIDE JURIDIKO ETA ZEHATZAILEA**

**24. artikulua:** Udal lizentziarik gabe, lizentziaren baldintzak edo ordenantza honen manuak bete gabe jartzen den publizitateak edo instalazioak zehapen espedienteak hasi egingo dira, gertaera hirigintzako urraketa delako.

**25. artikulua:** Ordenantza honen gaiari buruzko urraketei, oro har, hauek aplikatu ahal zaizkie: Lurraren eta Hiri Antolamenduaren Araubideko Legearen 84 eta hurrengo artikulua, eta Hirigintzako Diziplinaren Araubidearen 225 eta baterako artikulua.

#### **ZERGA ARAUBIDEA**

**26. artikulua:** Lizentzien titularrak udal administrazioari ordaindu beharreko eskubide eta tasak zerga ordenantza egokian xedatutakoari jarraiki arautuko dira.

#### **ARAUBIDE JURIDIKOA**

**27. artikulua:** Ordenantza hau aplikatzeak dakartzan errekurtsoek, zerga ordenantza egokia aplikatzeak sortzen ez baditu, administrazio izaera izango dute, eta aplikatu beharreko araubidea tokiko administrazioaren egintzen aurkako birjarpenezko errekurtsoetarako (eta jurisdikzio egokiaren aurreko administrazioarekiko auzien geroko errekurtsoarena) izaera orokorrean ezarritakoa izango da.

**Artículo 23:** La caducidad de la licencia se producirá automáticamente y sin perjuicio de su reconocimiento por acto municipal expreso, en el supuesto de que la colocación de la publicidad o la instalación no se lleve a cabo en el plazo de un mes computado desde la fecha de notificación de la licencia.

#### **REGIMEN JURIDICO - SANCIONADOR**

**Artículo 24:** La publicidad o instalación llevada a cabo sin licencia municipal o con incumplimiento de las condiciones de la misma, o de los preceptos de la presente Ordenanza, motivará la iniciación del correspondiente expediente sancionador, en base a que el hecho constituye una infracción urbanística.

**Artículo 25:** Con carácter general les será aplicables a las infracciones relativas a la materia a que se contrae esta Ordenanza, los artículos 84 y ss y 225 y ss de la Ley sobre Régimen del Suelo y Ordenación Urbana y concordantes del Reglamento de Disciplina Urbanística.

#### **REGIMEN FISCAL**

**Artículo 26:** Los derechos y tasas que los titulares de las licencias vengán obligados a satisfacer a la Administración municipal por este motivo, se regularán por lo dispuesto en la Ordenanza Fiscal correspondiente.

#### **REGIMEN JURIDICO**

**Artículo 27:** Los recursos que se susciten como consecuencia de la aplicación de la presente Ordenanza y que no se ocasionen por la aplicación de la Ordenanza Fiscal correspondiente, tendrán carácter administrativo y el Régimen aplicable será el previsto con carácter general para los recursos de reposición contra actos de la Administración Local y posterior recurso contencioso-administrativo ante la jurisdicción correspondiente.

## **XEDAPEN IRAGANKORRAK**

**Lehenengoa:** Ordenantza hau indarrean sartzean, udal lizentzia emana duten hesietarako, lizentziako baldintzak betez gero, daukaten lizentzia horren epea bukatutakoan, lizentzia berria eskatu beharra dago.

**Bigarrena:** Instalazioak ordenantza honetako zehaztapenak betetzen ez baditu eta horregatik lizentzia eman ezin bazaio, titularrak osorik desmuntatu behar du. Horretarako ematen zaion epean ezin badu egin, udalak ahalmena izango du agindua sorospidez betetzeko, eta instalazioaren titularraren kontura egingo dira sortzen diren gastuak.

## **AMAIERAKO XEDAPENA**

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean ordenantza hau onesten dela argitaratu ondoko egunean sartuko da indarrean ordenantza hau.

**DILIGENCIA:** Se extiende para hacer constar que en sesión plenaria de fecha 30-11-01, se aprobó inicialmente este Ordenanza, a fin de que pueda ser autorizada la publicidad en mobiliario urbano.

En el B.O.B nº 10, de 15-1-02, se publica anuncio relativo a esta aprobación.

No habiéndose presentado ninguna reclamación o sugerencia se entiende, de conformidad con la nueva redacción dada por la Ley 11/1999, de 21 de abril el artículo 49 c) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, definitivamente adoptado el acuerdo referido, siendo publicado en el texto íntegro de esta Ordenanza en el B.O.B. nº 64, de 5-04-02.

Getxo, 29 de abril de 2002.

EL SECRETARIO ACCTAL,

## **DISPOSICIONES TRANSITORIAS**

**Primera:** Las instalaciones de vallas que disfruten de licencia municipal a la entrega en vigor de la presente Ordenanza y cumplan las condiciones que en ésta se determinan, pasado el plazo previsto en la respectiva licencia deberán obtener nueva licencia para continuar instaladas.

**Segunda:** En caso de que la instalación, por ser incompatible con las determinaciones de esta Ordenanza, no pueda obtener licencia, el titular deberá proceder a su completo desmantelamiento, y si en el plazo al efecto otorgado no procediera a efectuarlo, el Ayuntamiento queda facultado para llevar a cabo la ejecución subsidiaria, siendo de cuenta del titular de la instalación los gastos causados.

## **DISPOSICION FINAL**

La presente Ordenanza entrará en vigor al día siguiente en que tenga lugar la publicación de su aprobación en el Boletín Oficial de Bizkaia.